



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

KONTSUMOBIDEKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ KONTSULTA PUBLIKOA EGITEN DA IBILGAILU BERRI ETA ERABILIEN SALEROSKETAN INFORMAZIOA JASOTZEKO ETA KONTSUMITZAILEEN INTERES EKONOMIKOAK BABESTEKO ESKUBIDEA ARAUTUKO DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURRETIK

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikitako erakunde autonomoak, aurreikusita dauka ibilgailu berri eta erabilien salerosketan kontsumitzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea arautzeko dekretu-proiektua egitea.

2022ko uztaillaren 15ean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legea argitaratu zen EHAA. Lege horrek testu berri batean sartu eta txertatzen ditu xedapen orokorrak egiteko prozeduraren arloko arauak, eta honako hau ezartzen du 11. artikuluan:

"1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaielen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkartza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazioako langile zein herritarra izan.

2.– Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3.– Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página. Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikokoaren irudikapen bat da, egoitza elektronikokoan egiaztatgarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez.

Santiago, 11 – 01002 Vitoria-Gasteiz / Tl. 945.06 21.40 – Fx. 945 06.21.41
e-mail: kontsumobide@kontsumobide.eus / www.kontsumobide.eus



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T81ET-483Y

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: ANA MARIA SANCHEZ HERRAEZ | 2026/03/31 20:20:27



4.– Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldeztu aurretik onetsi ondorengo araugintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada".

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz: ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak, arau hori onestea beharrezko eta egoki den, arauaren helburuak, eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak.

Hori guztia dela eta, betetzen da ibilgailu berrien eta erabilien salerosketan informazioa jasotzeko eta kontsumitzaileen interes ekonomikoak babesteko eskubidea arautuko duen Dekretu Proiektua lantzeko aldeztu aurretiko kontsulta publikoaren izapidea, herritarrek proposatutako arauan parte hartu eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten

Kontsumobide–Euskal Kontsumo Institutuko egitura eta antolaketa ezartzen dituen 159/2011 Dekretuko 3.4.d) artikulua emandako eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- Aldeztu aurretiko kontsulta publikoaren izapidearen mende jartzea ibilgailu berri eta erabilien salerosketan kontsumitzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea arautzen duen dekretu-proiektua, egin aurretik, 15 egun balioduneko epean, ebatzen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Gobernu Irekiaren Irekia plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

BIGARRENA.- Ebatzen honen eranskina onartzea, herritarrek ekimenari buruzko iritzia emateko behar den informazioarekin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoen egunean

ANA SÁNCHEZ HERRAEZ

KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUAREN ZUZENDARIA

ERANSKINA

1- EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>4/2023 Legearen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzari dagokio, besteak beste, bere lurralde-eremuan kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko politikaren plangintza orokorra diseinatzea eta politika horri eragiten dioten sailen arteko jarduketa-planak sustatzea. Kontsumitzaileak informazioa jasotzeko eta bere interes ekonomikoak babesteko duen eskubidea behar bezala babestu behar duen sektoreetako bat ibilgailu berrien edo erabilien salerosketa-kontratuak sinatzen diren unea da.</p> <p>Horri buruzko araudi berri bat behar da; izan ere, ibilgailu berri eta erabili baten salerosketa da erabaki ekonomiko garrantzitsuenetako bat kontsumitzaileentzat, eta, gainera, gatazka asko dituen sektorea da. Horregatik, honako hauek indartu nahi dira: kontratazioaren aurreko eta ondorengo informazio-betebeharrak, kontratu-dokumentazioa, prezioaren eta finantzaketaren gardentasuna, lege- eta merkataritza-bermea, urruneko eta establezimendutik kanpoko salmenten erregulazioa, eta, bereziki, atzera egiteko eskubidea eta 4/2023 Legearekin koherentea den zehapen-araubidea.</p>
2- ARAUA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Dekretu-proiektua justifikatzeko, ibilgailu berrien eta erabilien salerosketa-kontratuak formalizatzean kontsumitzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea modu eguneratua arautu behar da, are gehiago kontuan hartuta arlo horretan izandako aldaketak, bereziki Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren apirilaren 27ko 4/2023 Legea onartu zenetik, zeinak indartu egiten baititu kontratu aurreko informazioa eta kontsumitzaileen informazio-eskubideak.</p>
3- ARAUAREN HELBURUAK	<p>Dekretu-proiektuak arautuko du kontsumitzaileek informazioa jasotzeko eta interes ekonomikoak babesteko duten eskubidea, ibilgailu berri eta erabilien salerosketan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan lanbide- edo enpresa-jarduera baten esparruan egiten denean.</p>
4- EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK	<p>Aurreko ataletan azaldutako alderdiak kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da araudi espezifiko berri bat egitea, eta ezin da bestelako irtenbide alternatiborik hauteman.</p> <p>Arautu gabeko aukera, eta egokitze jotzen ez dena, arlo horretako erregulazioaren egungo egoerari eustean datza; izan ere, erregulazio orokorragoetan kokatzen da, eta ez mugatzen ibilgailu berri eta erabilien salerosketaren espezifikotasunera, baizik eta produktuen salerosketa orokorraren babesean.</p> <p>Bigarren aukera indarreko legeria aldatzea izango litzateke, zehazki, gai hori kontuan hartuta. Aukera hori baztertu egin da, izan ere, adierazi den bezala, egungo errealitateak berrikuspen osoa egitea gomendatzen du, ordutik kontsumoaren arloan egindako erreforma ugariak kontuan hartuta, Euskadik arau-esparru eguneratua izan dezan.</p> <p>Horrenbestez, adierazi den bezala, dekretu-proiektu bat egitea da aukerarik onena, aztergai dugun dekretu-proiektuaren xede den eremuan kontsumitzaileen eskubideak babesteko garatu diren lege-aldaketa guztiak jasoko dituen, segurtasun juridikoa ematen duen alternatiba ez-arautzailerik gabe.</p>